

Inazioaren Liburutegia Granada Egako Dukearen etxea zenean jarriko dute

Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak onartu egin du etxearen barnealdea berritzeko proiektua

Nerea Uranga

Loiolako Santutegiko Inazioaren Liburutegia Granada Egako Dukearen etxea zenean (basilika eta Loiolako Liburutegiaren bitarteko eraikina da) jartzeko proiektua onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak. Foru Aldundiak, etxearen barnealdea berritzeko lanetarako 548.603 euro emango ditu. Era berean, lanak egiteko kontratazio espedientea irekitzea ere onartu du. Lanak nork egingo dituen erabaki ondoren, horiek egitea egokitzen zaion enpresak sei hilabeteko epean bukatu beharko ditu.

Granada Egako Dukearen etxea zenean, beheko solairuan erabilera anitzeko espazioa jarriko dute; erakusketa eremu gisa erabiliko den deanbulatorio bat izango du. Bigarren solairuan, Inazioaren Liburutegiko liburuen bilduma eta Loiolako San Inazioaren irudia aztertzen ari diren adituen lan eta ikerketa gunek egongo dira.

Beheko solairua

Etxearen beheko solairuak 98,48 metro koadroko azalera erabilgarria izango du, hiru gelatan banatuta: 43,64 metro koadroko deanbulatorioa, erakusketa eremu gisa ere erabiliko dena; erabilera anitzeko 50,23 metro koadroko aretoa, 40 lagunentzako eserlekuekin eta hitzaldiak emateko ikus-entzunezko materialarekin; eta komuna.

Beheko solairutik bigarren solairura eskailera edota igogailu bidez igotzeko aukera izango da.

Bigarrengoan liburutegia

Inazioaren Liburutegia etxearen bigarren solairuan egongo da. Liburutegiak, 280,06 metro koadroko azalera izango du eta bost gunetan banatuta egongo da: atondoa, sei ikasleku izango dituen irakurketa gela, lau ikasleku eta gutxienez hamar pertsona hartzeko bilera gela, zuzendariaren bulegoa eta komuna. Liburutegiak datuen barne-sarrerako instalazioa izango du, ikaslekuetan Interneterako ADSL sarbidea izateko.

Etxea utzita

Granada Egako Dukearen etxea zena Loiolako monumentu multzoaren baitan dago, basilikaren eta gaur egun Loiolako Liburutegia dagoen eraikinen artekoa da. Santutegiaren eskuinaldeko lehen bost leihoak hartzen ditu. Guztira, 412 metro koadroko perimetroa du etxeak. Sotoa, kanpotik sarrera duen beheko solairua, solairu nagusia (basilikaren barnealdeko solairu baterako sarbidea duena), bigarren solairua eta ganbara ditu.

2006ko maiatzean, Granada Egako Duke Juan Alfonso Martos Aragoiko Azlorrek Loiolako bere etxearen zati bat Gipuzkoako Foru Aldundiari eman zion dohantzan; solairu nagusia edo lehen solairua ez gainerako guztia, alegia, hori oraindik haren esku baitago.